

# PRO ORANTIBUS 2021 JARDUNALDIA

## Otoitza

Aita guztiz Santua, goratu eta bedeinka zaitzala Eliza osoak, zeure Seme Jesusen bidez isuri duzun maitasunagatik eta hark, Espirituaren indarrez, itxaropen eraginkorraren eta neurrigabeko maitasunaren bidea zabaldu digulako. Berri ezazu guregan Zuri, Jainko bakar eta egiazko horri, sagaratu izanaren grazia; Zuk, “senidetasunaren ametsa” egia bihurtzen ahaleginak egitera deitzen gaituzu. Zuk, Aita, Semearekin eta Espirituarekin, zerbitzurako sagaratu guztion bokazioa gidatzen jarraitzen duzu; desagertaraz ezazu pandemia-garai hauetan bakardade, atsekabe eta heriotzaren ilunpea. Zure ekintza eraberritzaileari esker distira dezala berriro biziaren eta bakearen argiak. Eman gure bihotzari huts egiten ez duen itxaropenean oinarritzen den seme-alaben ausardia, zure Seme Jesu Kristo gure Jauna, Pazko-mezua aldarrikatzera bidaltzen baikaitu egunero: “Zoazte nire senideengana”.

Zuk, Aita guztiz Santua, eta zure Seme Jesusen antzera, sortu berriro guregan, Espiritu Santuaren indarrez, kontsolamenduaren grazia, guk ere besteak kontsolatu ahal ditzagun; sortu biziera leial eta egiazkoaren irribarrea, indarrak berriturik sendatu egiten baitu. Egin gaitzazu artisau apalak!, “munduko atsekabeak” sufritzen dauden hainbat zure seme-alaben atsekabeak, arintzeko.

Emaiezu berriro zeure presentziaren alaitasuna, eman Zugandik, Aita maitati horrengandik, eta zure Semeagandik eta Espiritu Santuagandik datorkigun salbamenaren poza.

Amen.

CONFERENCIA EPISCOPAL ESPAÑOLA

Comisión Episcopal
para la Vida Consagrada
Añastro, 1 · 28033 Madrid
vidaconsagrada@conferenciaepiscopal.es

Detalle del relieve «Descendimiento de la cruz», siglo XI (Monasterio de Santo Domingo de Silos, Burgos)